



Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

# **ESKOLA-BITARTEKARITZAKO PROGRAMA LEHEN HEZKUNTZAN**

## **GAINZURI LHI**

## **OTSAILAK 09**



Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

## **Edukiak**


- Lan orriak
  1. Pertsonen bila
  2. Gatazkaren zikloa
  3. Komunikazioa eraginkorra
  4. Emakume zaharra ala emakume gaztea
  5. Interkomunikazio aktiboa
  6. Bihotzeko kirurgia
  7. Bitartekaritza prozesua
  8. Arreritzia eta kontzientzia soziala
  9. ni mazuak diseinatzen
  10. jarrerak eta interesak/beharrak
  
- Eranskinak
  1. Gatazka bitartekarien txostena
  2. Behaketa inprimakia

## I. PERTSONEN BILA

### BILATU:

1. Telebistarik ez duen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
2. Erretzen ez den etxe batean bizi den pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
3. Eskolan berria den pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
4. Artista den pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
5. Hiru anai-arreba edo gehiago dituen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
6. Hiru hizkuntza hitz egiten dituen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
7. Etxean haurtxo bat duen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
8. Zure urtebetetze egun bera duen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
9. Herrialde honetan jaio ez den pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
10. Etxean animalia bat baino gehiago dituen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
11. Zure oinetakoen zenbaki bera duen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
12. Zure kolorerik gustukoena gogokoen duen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_
13. Zure TBko saiorik begikoena gustukoen duen pertsona bat.  
Bere izena da \_\_\_\_\_

## 2. GATAZKAREN ZIKLOA



Gure gatazkari buruzko usteak gure guraso, irakasle, komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuetatik eta geure esperientziatik datoz. Uste hauek gure jarrerari eragiten diote gatazka bat gertatzen denean.

Gure erantzuna gatazka gertatzen denean egiten duguna da. Gure erantzuna, oro har, gatazkari buruz ditugun usteetan oinarritzen da. Zer egingo zenuke gatazka baten aurrean? Erantsi diezaiekezu goian agertzen diren erantzunei?


Gatazka baten aurrean dugun jokaerak ondorioetara eramaten gaitu. Ondorioak negatiboak edo positiboak izan daitezke. Oihu egiten badugu, edo arazorik ez dagoen itxura egiten badugu, ondorioak sentimendu zaurituak edo arazoa okertzea izan daitezke. Hauek ondorio negatiboak dira. Arazoari buruz oihurik egin gabe eta mindu gabe hitz egitea onartzen badugu, honek sentimendu atseginen ondorio positibora eraman gaitzake, bai geuri buruz eta bai beste pertsonari buruz, eta, azkenean, arazoa konpontzera eramango gintuzkete.

Gatazka baten aurrean dugun erantzunaren ondorioek gure gatazkari buruzko usteak are indartsuagoak bihurtuko dituzte. Honek esan nahi du gure gatazken zikloak, seguru aski, berdin jarraituko duela.




Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

## GATAZKAREN ZIKLOA (Lan-orria)



## KOMUNIKAZIO ERAGINKORRARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK



#### 4. KOMUNIKAZIO ERAGINKORRARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK (BEHAKETA-ORRIA)

TBko saioa \_\_\_\_\_

1. Zeintzuk egon ziren gatazkan edo gaizki ulertzean sartuta?

2. Zergatik izan zen gatazka? Azaldu zer gertatu zen.

3. Zein faktorek oztopatzen dute komunikazio eraginkorra?

4. Zein izan ziren desberdintasunak faktoreen artean? Bete ezazu segidako koadro hau:

	Baloreak	Pertzepzioak	Usteak	Komunikazio estiloa
A pertsona				
B pertsona				

## 4. EMAKUME ZAHARRA ALA EMAKUME GAZTEA





## 5. INTERKOMUNIKAZIO AKTIBOAREN GIDAK

1. Jar zaitetz bestearen lekuan zer esaten ari den eta nola sentitzen den ulertzeko.
2. Adieraz itzazu ulerkuntza eta onarpena, ez hitzezko jokaeren bidez:
  - Ahotsaren doinua
  - Aurpegiaren adierazpenak
  - Keinuak
  - Ikusizko kontaktua
  - Jarrera
3. Laburbildu hizlariaren sentimendu eta ideiarik nagusienak. Saiatu bere hitzekin egiten.
4. Ez eten, ez eman aholkurik edo ez egin iradokizunik. Ez aipatu zeure esperientzian izandako antzeko arazo edo sentimendurik.
5. Neutral egon. Ez sartu.
6. Interpretazio irekia duten galderak egin beste pertsona zerk kezkatzen duen hobeto ulertzeko.

## Interkomunikazio aktiboaren Teknikak

(Lan-orria)

Beste pertsonari hobeto komunikatzen laguntzen dioten jarrerak

Jarrera	Helburua	Hau egiteko...	Adibideak
Animatzen	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Interesa komunikatzeko</li> <li>2. Beste pertsona hizketan jarraitzera animatzeko</li> </ol>	<p>...ez sartu</p> <p>...hitz neutroak erabili</p> <p>...ahots doinu desberdinak erabili</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Esango didazu gehiago...?"</li> <li>2.</li> </ol>
Argitzen	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Esan zena argitzen laguntzeko</li> <li>2. Informazio gehiago lortzeko</li> <li>3. Hiztunari beste ikuspuntu batzuk ikusten laguntzeko.</li> </ol>	<p>...galderak egin</p> <p>...interpretazio oker bat berretsi, hiztuna azalpen gehiago ematera behartzeko</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Noiz gertatu zen hau?"</li> </ol>
Errepikatzen	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Esaten ari dena entzuten eta ulertzen ari zarela erakusteko</li> <li>2. Bere esanahia eta interpretazioa berresteko</li> </ol>	<p>...oinarrizko ideiak eta gertaerak berretsi</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Beraz, zure gurasoek zuregan gehiago sinistea nahiko zenuke, ezta?"</li> </ol>
Islatzen	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Beste pertsona nola sentitzen den ulertzen duzula erakusteko</li> <li>2. Pertsonari bere sentimenduak ebaluatzen laguntzeko, hauek beste batek adierazita entzun ondoren</li> </ol>	<p>...hiztunaren oinarrizko sentimenduak islatu</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Oso aztoratuta dirudizu"</li> <li>2.</li> </ol>
Laburbiltzen	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aurrerapena berrikusteko</li> <li>2. Ideia eta gertaera garrantzitsuak erlazionatzeko</li> <li>3. Eztabaida jarraitzeko oinarri bat ezartzeko</li> </ol>	<p>...adierazi diren ideia nagusiak berretsi, sentimenduak barne</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Badirudi hauek direla zuk adierazitako ideia giltzarriak..."</li> <li>2.</li> </ol>
Balioztatzen	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Beste pertsonaren balorea aitortzeko</li> </ol>	<p>...bere atsekabea eta sentimenduak balioztatu</p> <p>... bere ahalegin eta ekintzekiko estimua adierazi</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "Eskertzen dizut arazo hau konpondu nahi izatea"</li> </ol>

## 6. BIHOTZEKO KIRURGIA

### ARIKETA


Zuek zirujauak zarete oso ospitale handi batean. Zuen batzordeak oso erabaki garrantzitsua hartu behar du. Gaixo asko dira bihotz-transplantea behar dutenak, baina, une honetan, emaile bakarria dago. Zein gaixo aukeratuko zenuke transplantea egiteko? Zergatik? Batzordeak aho batez ados egon behar du erabakiarekin.

### GAIXOAK

- Burmuineko zirujau ospetsua, karreraren gorenean. Ezkongabea, arraza beltzeko emakumea. Seme-alabarik ez. 31 urte.
- 12 urteko neska japoniar bakarlaria (kontzertista).
- 40 urteko irakaslea. Gizon hispaniarra, bi seme.
- Haurdun dagoen 15 urteko emakumea. Ezkongabea, zuria, ez du beste seme-alabarik.
- 35 urteko apaiz katolikoa. Filipinarra.
- 17 urteko zerbitzaria. Zuria, ez du bigarren hezkuntza amaitu. Familia mantentzen laguntzen du irabazten duenarekin.
- IHESaren ekintzaile ezaguna, 38 urte, txinatarra, lesbiana, seme-alabarik ez.


## 7. BITARTEKARITZA PROZESUA

**Bitartekaritza saioaren aurretik:  
 Gatazkan sartuta dauden  
 ikasleen prestakuntza**




HELBURUAK	BITARTEKARIAREN LANA
<p>Konfiantza lortu.</p> <p>Gatazkan dauden aldeak prozesua erabiltzearekin ados egotea ziurtatu.</p> <p>Haserrea gutxitu</p>	<p>Aurkeztu.</p> <p>Gatazka Bitartekariaren rola azaldu.</p> <p>Prozesua eta oinarrizko arauak azaldu.</p> <p>Gatazka Bitartekaritza erabiltzeak dituen abantailak eztabaidatu.</p> <p>Ikasleari prozesu hau erabiltzearekin ados egotean duen meritua aitortu</p>

**I. etapa:  
 Arazoa definitzen**




HELBURUAK	BITARTEKARIAREN LANA
<p>Giro positiboa ezarri.</p> <p>Oinarrizko arauak Ezarri.</p>	<p><b>Ongietorria</b></p> <p>Egin ongietorria gatazkan sartuta dauden aldeei.</p> <p>Saioaren helburua ezarri eta esan: “Zuek gela honetan esandako guztia bertan geratuko da, haurren tratu txarrekin eta indarkeria mehatxu larriekin zerikusia dutenak salbu”.</p> <p>Oinarrizko arauak ezarri. Kide bakoitzak baietza eman behar die honako hauei:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ez etetea.</li> <li>▪ Izengoitirik ez erabiltzea.</li> <li>▪ Ahalik eta zintzoenak izatea.</li> <li>▪ Fisikoki borrokarik ez egitea.</li> <li>▪ Hitza Gatazka Bitartekariei bakarrik zuzentzea hasieran.</li> </ul>
<p>Informazioa eskuratu.</p> <p>Alde bakoitzaren kezkak ulertu.</p> <p>Arazoa definitu.</p> <p>Talde-lan eraginkorra erabili.</p>	<p><b>Arazoa definitu</b></p> <p>Erabaki ezazu nork hitz egingo duen lehendabizi.</p> <p>Galdetu pertsona bakoitzari zer gertatu zen eta nola sentitzen den.</p> <p>Laburbildu zure hitzekin bakoitzak esandakoa.</p> <p>Egin itzazu arazoa ulertzen lagunduko dizuten galderak. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zer esan nahi duzu horrekin?</li> <li>▪ Noiztik ezagutzen duzue elkar?</li> <li>▪ Konta iezadazu gehiago horren inguruan.</li> <li>▪ Noiztik ari da gertatzen egoera hau?</li> </ul> <p>Ezagutu eta baloratu gertaera eta sentimendurik garrantzitsuenak.</p> <p>Identifika itzazu antzekotasunak.</p> <p>Laburbildu gertaerak pertsona bakoitzarentzat.</p>

**II. ETAPA:**  
**Aldeei euren artean ulertzen lagundu**



HELBURUAK	BITARTEKARIAREN LANA
<p>1. Aldeei lagundu elkarrekin hitz egin dezaten.</p> <p>2. Aldeek elkarri entzutea ziurtatu.</p> <p>3. Aldeek elkarri uler diezaioten lagundu.</p> <p>4. Eztabaidari zentratuta eutsi.</p>	<p>Lehendabizi zer eztabaidatuko den erabaki (I. etapako laburpena erabili).</p> <p>Aldeei elkarrekin hitz eginarazi puntuetako bakoitzari buruz.</p> <p>Proposatutako teknikak eta galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Nola erreakzionatzen da ...gertatutakoan?</li> <li>▪ Deskriba dezakezu zer egin zuen berak zu molestatzen zaituena?</li> <li>▪ Zergatik molestatzen zaitu?</li> <li>▪ Zer nahi duzu ulertzea beste pertsonak arazoari buruz?</li> <li>▪ Zer espero duzu berarengandik?</li> </ul> <p>Eska iezaiezu aldeei laburtzeko, bere hitzetan, besteak esandakoa.</p> <p>Behar izanez gero, laburbildu zeuk, batak besteari ulertzeko.</p> <p>Galdetu aldeei ea aurrez izan duten horrelako esperientziarik.</p> <p>Egizu lortu denaren laburpen bat, beraien lankidetzaz aitortzea eta balioztatzea ziurtatuz.</p>



**II. etapa:**  
**Aldeei irtenbidea topatzen laguntzen.**

HELBURUAK	BITARTEKARIAREN LANA
<p>Aldeei irtenbide justua eta errealista topatzen lagundu, bientzat onargarria izango dena.</p>	<p>Galdetu alde bakoitzari bere ustez zein litzatekeen bidezko irtenbidea. Ziurta ezazu I. Etapako puntu guztiei heltzea.</p> <p>Egin akordioak alde bakoitzarekin irtenbide bakoitzaren inguruan.</p> <p>Ziurtatu irtenbideak izan daitezela:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Errealistak (egiteko modukoak).</li> <li>▪ Zehatzak (zer, non, noiz, nor(k)).</li> <li>▪ Orekatuak (bi aldeek laguntzea).</li> </ul> <p>Galdetu aldeei nola maneatuko luketen gatazka, berriro gertatuz gero.</p> <p>Laburbildu akordioko puntu guztiak.</p> <p>Idatz ezazu akordia Gatazka Bitartekariaren albiste-inprimakian.</p> <p>Eskatu aldeei lagunei kontu diezaietela gatazka konpondu dela, zurrumurruak saihesteko.</p> <p>Zoriondu aldeak akordio batera iristeagatik.</p>

## BITARTEKARITZA PROZESUA: ESKEMA

	Helburuak	Metodoa
Prestaketa	Aldeek Gatazka Bitartekarien laguntza onartzea lortu	Azaldu labur-labur prozesua eta oinarritzko arauak.  Izendatu onurak.  Galdetu ea ados dauden prozesua erabiltzeko.
I. Etapa	Lagundu alde bakoitzak arazoa bere ikuspuntutik defini dezan	Eman oinarritzko araei buruzko informazioa, eta eskatu beraien adostasuna bakoitzarekiko.  Esan, aurrerantzean, bitartekariei soilik hitz egingo dietela (ez elkarri).  Galdetu alde bakoitzari zer gertatu zen.  Errepikatu.  Galdetu ea arazoak eragin dien.  Errepikatu.  Argitzeko galderak egin.  Laburbildu alde bakoitzaren kezkak.
II. Etapa	Aldeei elkarren artean ulertzen lagundu.	Eskatu aldeei elkarri hitz egiteko.  Errepikarazi besteak esan duena.  Galdetu ea antzeko bizipenik izan duten.  Estimatu aldeak egiten ari diren ahalegina.
III. Etapa	Aldeei irtenbidea topatzen lagundu.	Galdetu aldeei ea baduten arazoizko irtenbiderik.  Ziurtatu irtenbideak orekatuak, errealistak eta zehatzak izatea.  Saiatu aldeek ekarritako gai garrantzitsu guztiei irtenbideak topatzen.  Zoriondu egindako ahaleginarengatik.



## 8. AURREIRITZIA ETA KONTZIENTZIA KULTURALA

1. Zein arraza / kultura talderi zagozkio?
2. Norbaiten aurrean aurkezten zaituztenean, zein arraza taldetakoa zarela uste dute?
3. Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna zure arraza/kultura taldetik?
4. Zein estereotipo ditu jendeak zure arraza/kultura taldeaz?
5. Zerk sentiarazten zaitu hobeto talde batzuekin beste batzuekin baino? Zergatik?
6. Zein topiko eztabaidatu nahiko zenituzke beste talde batzuetako kideekin, baina ez duzu egiten gaizki ulertuko duten edo beste arrazoiren baten beldur zarelako?
7. Zein esperientzia jaso dituzu beste talde batzuetako kideekin izandako komunikaziotik? Zein gauza garrantzitsu ikasi zenituen?
8. Zer uste duzu egin behar duzula beste arraza/kultura talde bateko pertsonekin komunikatu ahal izateko?
9. Aurreiritziren bat duzula konturatuko bazina, zein neurri hartuko zenuke egoera hau maneiatzeko?
10. Aurreiritziz betetako komentario edo txantxak entzunez gero, zer egin edo esango zenuke jokaera hau eteteko? Komentatu alor honetan izandako esperientzia onen bat.

\* *Marcia Pretzell eta Jim Halliganek landua, 1993.*

## 9. NI MEZUAK DISEINATZEN

Pentsa ezazue bitartekaritza saio batean zaudetela, eta idatzi NI mezu bat egoera hauetarako:

1. Gatazka duten aldeek elkarri eteten diote etengabe. Behin eta berriz errepikatu dizkiezue oinarrizko arauak. Emaiezue Ni Mezu bat.
  - sentitzen naiz
  - zu(k) ...nean
  - zeren eta
2. Aurkako bi kontaketa entzun dituzue alde bakoitzarengandik.
  - sentitzen naiz
  - zu(k) ...nean
  - zeren eta
3. Bitartekari batek ez zizun prozesuan parte hartzeko aukerarik eman. Saioa amaitutakoan minutu batzuk hartu dituzue elkarrekin nola lan egin duzuen eztabaidatzeko.
  - sentitzen naiz
  - zu(k) ...nean
  - zeren eta
4. Gatazkako aldeetako bat sutan dago. Modu txarrean hitz egiten dizuete, eta esan dizue “Utz nazazue bakean, zoazte beste leku batera zuen lana egitera!”
  - sentitzen naiz
  - zu(k) ...nean
  - zeren eta
5. Zure lankidea aldeei aholkuak ematen hasi da.
  - sentitzen naiz
  - zu(k) ...nean
  - zeren eta

## 10. JARRERAK ETA INTERESAK/BEHARRAK

Idatz ezazu jarrera bakoitzari dagokion interesa:

JARRERAK	INTERESAK/BEHARRAK
<b>Jarrera</b> gertatzea erabaki duzuna da. Adibidea: leihoak itxita egon behar du. Modu bakarra dago jarrera bat asetzeko.	<b>Interesa</b> erabaki hau sortzen duena da. Adibidea: Haizeak jotzen zaitu zuzenean. Modu asko daude interes bat asetzeko.
1. Zurekin eztabaidan ari den pertsonari isiltzeko esan diozu.	
2. Zure anaiari esan diozu inoiz gehiago ez diozula utziko zure jertse berria.	
3. Mahaiburutik hurbileneko aulkia jangelako mahaian eduki behar duzu.	
4. Irakaslearengana okupatuta dagoenean hurbildu zara, eta esan dizu ez duela zurekin hitz egingo, eteten ari zarela eta.	
5. Norbaitek arraza-komentarioak egin ditu zutaz. Berriro egiten badu, jo egingo duzula mehatxatu duzu.	

Zein da zein?

(Idatz ezazu JARRERA edo INTERESAK/BEHARRAK esaldi bakoitzaren ondoan)

“ Errespetuz tratatua izan behar dut” \_\_\_\_\_

Amak dio, “Irteten bazara, ordu oro deitu behar duzu” \_\_\_\_\_

“Beste hitz bat esaten baduzu, atxilotu egingo zaitut” \_\_\_\_\_

Zure amak dio, “ Non zauden eta seguru zauden jakin nahi dut” \_\_\_\_\_



Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

## **ERANSKINAK**



Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Transformación de Conflictos

## GATAZKA BITARTEKARIEN TXOSTENA

**Data:** \_\_\_\_\_

**Gatazka Bitartekariak:** \_\_\_\_\_

**Aldeak:** \_\_\_\_\_

**Nork aipatuak:**

Errektoreak \_\_\_\_\_ Kontseilariak \_\_\_\_\_ Irakasleak \_\_\_\_\_ Ikasleak \_\_\_\_\_  
Laguntzaileak \_\_\_\_\_ Segurtasunak \_\_\_\_\_ Eurek \_\_\_\_\_ Beste batek \_\_\_\_\_

**Gatazka mota:**

Zurrumurrua/txutxu-mutxua \_\_\_\_\_ Objektu pertsonalak \_\_\_\_\_ Dirua \_\_\_\_\_  
Zirikatzea \_\_\_\_\_ Pribatutasuna \_\_\_\_\_ Senargaia/Emaztegaia \_\_\_\_\_ Apalkuntza \_\_\_\_\_  
Mehatxua \_\_\_\_\_ Borroka \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

**Ados daude Gatazka Bitartekariarengana jotzearekin?** Bai \_\_\_\_\_ Ez \_\_\_\_\_

**Zertaz izan zen gatazka?** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

**Akordioa:**

\_\_\_\_\_ k  
(aldearen izena)  
zera adostu du eta honetarako  
konpromisoa hartu du:

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
(Aldearen sinadura)

\_\_\_\_\_ k  
(aldearen izena)  
zera adostu du eta honetarako  
konpromisoa hartu du:

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
(Aldearen sinadura)

## **BEHAKETA-INPRIMAKIA: ZER BILATU JARDUERAN**

1. Zer atera zen ondo?
2. Zerk behar du lan gehiago?
3. Defini ezazu arazoa aldeetako bakoitzaren ikuspuntutik.
4. Uste duzu bitartekariak entzun zitezela aldeei? Azaldu.
5. Neutralak izan ziren bitartekariak?
6. Zure ustez bitartekaritzak konponduko du arazoa? Zergatik?
7. Arazoaren konponbidea bidezkoa izan zen? \_\_\_\_\_ Zehatza? \_\_\_\_\_ Errealista? \_\_\_\_\_  
Komentarioak:
8. Deskriba itzazu aldeengan izandako aldaketak (esate baterako, gorputz-hizkuntza, bestearenganako sentimenduak, gatazkaren pertzepzioak), saioaren hasieratik amaierara arte.
9. Zer moduz joan zen bitartekarien talde-lana?

## TREBAKUNTZAREN EBALUAZIORAKO GALDETEGIA

1. Emaiozu kalifikazioa trebakuntzari 1etik(pobrea) 5erako(bikaina) eskalan \_\_\_\_\_
2. Idatzi trebakuntzan ikasi zenituen hiru gauza.
  - a) \_\_\_\_\_
  - b) \_\_\_\_\_
  - c) \_\_\_\_\_
3. Trebakuntzaren zein ataletan gozatu zenuen gehien?
4. Zer aldatuko zenuke trebakuntza hobetzeko?
5. Trebakuntza zer izan zen, oso luzea? \_\_\_\_\_, oso laburra? \_\_\_\_\_, nahikoa? \_\_\_\_\_
6. Baduzu beste komentario edo iradokizunik guretzat? Azaldu.